

# Super bizitza

Alex Gurrutxaga

Elak 2002an argitaratu zuen *Pasio hutsa* lanak eguzien Annie Ernaux gurean ezagun, eta ordutik egile frantsesaren hainbat lan argitaratu dituzte, hala nola, *Gertakizuna* eta *Emakume bat*.

Ernaux 1970eko hamarkadan hasi zen literatura argitaratzen, eta haren lehen lanetarik ikusten da autobiografiaren garrantzia. Nitasun argia da egileak paperera eramaten duena, ezkutaketa aritu gabe; alabaina, ni hori diluitu egiten da kolektibitatean –modernitate likidoaz mintza gintzeko–. Horren adibide da *Begira zenbat argi, maitea*: non egon daiteke pertsona bat, ni ongi mugatua, supermerkatu batean baino difuminatuago?

Horixe da hemen kokagunea, superra, eta kontakizunaren mui-na egileak hara egindako bistek markatzen dute. Liburuaren hasieran, saio moduan idatzitako sarrera labor interesgarria dago.

Nola edo hala, supermerkatuaren soziologiarako ohar laburtzat har daitezke oharrok, aro postmodernoren espazio esanguratsua baita zentro komertziala: horrek bizitza garaikidean daukan zeresana iradokitzen du Ernauxek. «Idatz liteke –esaten du– bizikontakizunik, noski, maizen joaten garen saltoki handietan barrena ibiliz». Halako kontakizun go-goangarria da, adibidez, F. Ozonen *Sous le sable* filmeko sekuentzia, zeinetan protagonista superreko pasilloetan promena-



**'Begira zenbat argi, maitea'**  
Egilea: Annie Ernaux. Ilustratzailea: Xabier Aranburu. Argitaletxea: Igeia.

tzen den, Barbararen *Septembre* nostalgikoa entzuten dugun artean; Ernaux, berriz, Dalidaren *Come prima* entzun zuen aldiuz gogoratzen da.

Sarreraren ondoren, eguneroko forma dauka testuak –2012ko azarotik 2013ko urrira–. Narratzailea behatzailea da funtsean, eta superrean ikusten duena eta horrek eragiten dizkion inpresioak adierazten ditu. Sarreran, Ernauxek esaten du adierazpenok «oharrik eta sentipenik gabe» egitera doala; «triste eta etsitua sentitzen naiz»; «honek amorrarazten nau gehien»; «hipokrisia hutsa da».

Tramak ez dauka egitura klasikoa, eta tonua uniformea da, deskriptiboa. Indargune nagusia egilearen begiradan dago: begiratu ernea dauka Ernauxek, eta argi eta zorrotz interpretatzen du ingurua. Batez ere klase sozialei dagozkien oharrak aurki ditzakegu, aberastasunaz, gizon-emakumeen arteko desorekei buruz, eta, oroz gain, supermerkatuen funtzionamenduaz. Adibide bat:

«Horra kutxa automatikoen perbertsioa: kutxazain arruntetan, langile geldoak bereganatzen du bezeroen haserrea [mantso ari bada]; hemen, bezeroak». Esaldiak eman dezake Ernauxen tonuaren berri. Gainerakoan, estilo xumez idazten du, anpulotasunik gabe eta jario orekatuan.

Harkaitz Canok *Compro oro* liburuo poema bikain batean iradokitzen duen bezala, antzinako arrantzalearen bakardadea transformatu da aspaldi: gaur, bakardadea, supermerkatuko hozkailuaren aurrean aurkitzen dugu, hamaika izokin zorroratu markaren artean aukeratu behar dugunean, galduta eta arrotz, argi zuri aseptikoen pean. *Begira zenbat argi, maitea* lanaren hasierako aipuan irakurtzen dugu: «Hain dira inpersonalak neoiz argizatutako hango eremuak, ezen ongizatek adina dute alienaziotik».

Ernauxen liburuia xumea da: eleberritik baino hurbilago dago saikera eta ohar pertsonaletatik, eta balio estetiko puruari baga-gozkio, ez da bereziki nabarmentzekoa. Baina gaiak eta berau behatzeko erak liburuxka oso interresgarria bihurtzen dute.



## 'Sekula gehiago egingo ez dudana gauza ustez dibertigarri bat'

Egilea: David Foster Wallace.  
Itzultzailea: Danele Sarriugarte.  
Argitaratzailea: Pasazaitte Liburuak.

David Foster Wallaceren liburuak eman dio hasiera argitaletxearen 43. Ipar Paraleloa bilduma berriari. Danele Sarriugartek ekarri du euskarara Fosterrek enkarguz idatzi zuen lana, luxuzko itsas bidaia baten kronika.



## 'Filosofiarako sarrera bat'

Egilea: Agustín Arrieta Urtizberea.  
Argitaratzailea: EHU.

Azken bost urteotan EHUko Filosofiako eta Gizarte Antropologiako graduetan eskaini duen izen bereko ikasgaiaren harira sortutako liburuan, filosofiari buruzko oinarriko ideiak ematen ditu Arrietak. Hitzazurrean dioenez, «filosofia espazioaren, auzien, galderen eta erantzun-bideen mapa bat eskaintzea» du helburu lanak.



## 'Txoriak ezkutatzun zuena'

Egileak: Aina Saez Baztan eta Inaki Martiarena. Argitaratzailea: Autoekoizpena.

Barruko bidaia baten kronika ondu dute Aina Saez Baztan idazleak eta Inaki Martiarena *Mattin* marrazkilariak. Heldueneko lana da, nahiz eta baduen, egilean ustez, haurren mundutik gertu dagoen poetika bat.

# Boro, boro, borobila, ia

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Barruko leihotik/ sartu da ekia/ bihotza jaikita/ zabal begia». Hala dio *Ekia* aletxoak, izenburuari erreferentzia egiten dion lau poemetak batek.

Zazpi ataletan banatuta dago, baina gaiak ez dira atalak bezainbeste. Arestian aipatu lau poematxoen gaiak, *barruko leihoa* irudikatzen ari diren horienak, atalek baino hobeto banatzen dute liburua: natura, landareak, animaliak eta hitza.

Salbuespenak salbu, aurkituko dugun poema moldea ere irudikatzen dute: lau lerrokoak, errimari eta erritmoari lehentasunez atxikia, ideia konplexuak (ez beti) irudi sinpleen bidez azaltzen. Emaizta, halakoa da, jostalaria ideiekin bezainbat

hizkuntzarekin, mendizalea irudietan, laburrean simplea (sinplegia, batzuetan?), herabea sentimenduetan eta pentsamoldeetan. Ahozkotik gertu, boz gora irakurtzeko aproposak dirudite.

Ezin aipatu gabe utzi ilustrazioek duten indarra, sarrin ondoan dituzten poemak baino indar poetiko handiagoa erakusten dutela iruditu zait niri. Badaitort, liburua zabaldu eta han azaltzen zaigun paisaiari so eman dudana denbora neurtzeko erlojurik ez da sortu.



**'Barruko leihoa'**  
Idazlea: Pello Añorga.  
Ilustratzailea: Jokin Mitxelena.  
Argitaletxea: Pamiela.

# Herri jakituria

## HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Ahoz aho, mendez mende eraikitzen jogan diren esaera eta ipuinei esaten zaie herri jakituria. Giza portaera bideratu eta zuzentzeko tresna gisa erabili izan dira, kultura deitzen dena gorpuztu, eta herri bakoitzaren pentsamolde propioa eraikitzeko. Herri jakituriaren aleak begiratu eta irudiak ezagutzen dira. Gehienek umorea dute ardatz, baina badakite ere beldurra erabiltzen euren mezua zabalatzeko.


*Zozomikoteak* deritzen egunekin bada herri jakituriako ipuin bat, Hernaniko Dobera elkarteak tapa gogorreko ipuin ilustratu batean jarri duena.

Testuak ahozkoaren transkripzio orraztua ematen du, eta irudiek ipuinaren eszena (pauso) bakoitzaren horma-irudia.

Testua ezkerretara dago, askotan orrialde erdia ere betetzen ez duela; ilustrazioa eskuinetara, artzainaren gan jarrita fokua.

Kontaktak ez du umorerik lantzen, eta amaiera aldera zakar samarra ere gerta daiteke; irudiek tonu alaiagoa erakusten dute, estilo gozoarekin eginak daude, izuak apaltzeko edo.

Emaizta oso duina iruditu zait, are duinagoa sustatzaileen apaltasuna aintzat hartuta. dago, horrek esan nahi du ez dagoela justifikatua.



**'Zozomikoteak'**  
Idazlea: Jexux Eizagirre Portillo.  
Ilustratzailea: Alai Zubimendi.  
Argitaletxea: Dobera.